

- Zerga Administrazioa: OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

Departamentu a eta €	OGASUNA ETA FINANTZA 05 PROPIOA	2013: 116.737.229 EUROKO AURREKONTU
-----------------------------	------------------------------------	-------------------------------------

Programa eta €	Izena: Zerga Administrazioa Kodea: 10 Generoaren garrantzia: Ertaina Aurrekontua: 21.481.308				
-----------------------	---	--	--	--	--

	2011	2012	2013	12/11	13/12
GATUA EUROTAN	22.186.344	22.690.011	21.481.308	+%2,22	% -5,33
Departamentuaren aurrekontuaren gaineko ehunekoa (konpromisorik gabe)	%23,59	%20,26	%18,4	-%3,33	% -9,18

Zerga Administrazioa programan, bai barrura begira bai zergadunari begira kudeaketa eraginkorra lortzera bideratutako helburuak eta jarduerak biltzen dira. 2012an pisu portzentuala zertxobait jaitsi egin da (1,86 pp), eta hori, Departamentuaren barruan Zor Publikoaren programara bideratutako aurrekontua handitu izanaren ondorio izan da nagusiki.

Hala eta guztiz ere, esan dezakegu, programaren aurrekontua 1.208.703.- € jeitsi dela zenbaki absolutuetan; hau da, %5,33ko jeitsiera nabarmena izan du.

Xedek, hartzaileak eta programaren jarduerak

Programa: jarduera-ildo nagusiak, generoaren ikuspegitik begiratuta:
 Lehenengo hiruak: 1) Zergaduna artatzeko zerbitzu integrala hobetzea.
 2) Zerga betekizunak borondatez betetzeko joera sustatzea.
 3) Herritarrak zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzko Legean aurreikusitakora moldatzea.

Horik dira zergadunekiko zuzeneko harremana izatea dakarten jarduera-ildoan; eta ondorioz, lehentasunez aztertu beharrekoak.

Analisi kuantitatiboa, generoaren arabera

PFEZren zergadun kopurua sexuaren arabera (zerga oinarriaren titularraren arabera sailkatuta):

	2009	2010
Emakumeak	%42,7	%43,8
Gizonak	%57,3	%56,2

Lanaren kopurua eta batez besteko etekina PFEZan:

	2010 (kop.)	2010 (€)
Emakumeak	149.860	18.239 €
Gizonak	195.567	25.772 €

Jarduera ekonomikoen kopurua eta batez besteko etekina PFEZan:

	2010 (kop.)	2010 (€)
Emakumeak	16.261	11.875 €
Gizonak	29.160	13.231 €

Aurrezkiaren, kopuruaren eta batez besteko etekinaren oinarri likidagarria PFEZan:

	2010 (kop.)	2010 (€)
Emakumeak	158.803	2.313
Gizonak	200.055	2.154

Ondarearen gaineko Zergaren zergapekoen ehunekoa (2011rako simulazioa):

	2008	2011 (simul.)
Emakumeak	%55,2	%56,2
Gizonak	%44,8	%43,8

Norbere konturako langile zergapekoen ehunekoa (jardueren eranskina PFEZan):

	2010	2011
Emakumeak	%36,6	%36,1
Gizonak	%63,4	%63,9

Eskualdaketen gaineko Zergaren zergapekoen ehunekoa (60T eredia, eskuratzailerak):

	2010	2011
Emakumeak	%46,7	%45,1
Gizonak	%53,3	%54,9

Matrikulazioaren gaineko Zergaren zergapekoen ehunekoa:

	2010	2011
Emakumeak	%31,4	%29,8
Gizonak	%68,6	%70,2

**Analisi edo
gogoeta
kualitatiboa**

Oro har, programan generoaren ikuspegia sartzen den lehenengo ekitaldia denez, generoarekiko sentikorragoak diren eremuen eta eremu horien hutsuneen hasierako diagnostiko batetik abiatu behar da.

Illo horretan, Zerga Administrazioako zerbitzuen erabiltzaileen datuak bildu behar dira, **sexuaren arabera berezitako datuak**. Dena den, lehen ere sexuaren aldaera jasotzen da

PFEZan eta zerga-bulegoetan bertan eskaintzen diren zerbitzu jakin batzuetan (aplikazio berrietan jasotzen direnak, batez ere). Hori horrela, 030 ereduan jasotzen da informazio hori, eta 036 ereduan ere egitea aurreikusi da (urte bukaera alderako). Gainera, beste hainbat kasutan ere –herritarrek zerga arloko kontsultak egiten dituztenean, erreklamazioan aurkezten dituztenean, ...– datu horiek bildu egin beharko lirateke, Ogasuneko zerbitzuen erabilzaileen analisi bat egin ahal izateko (sexua, adina, ...).

Horrela, gizartearen joerak ezagutuko genituzke Zerga Administrazioarekiko harremanetan; esaterako, Ogasunaren aurrean, gizonak al dira kulturalki edo familiaren, negozioaren eta abarren ordezkari direnak, edo horien kudeaketaz arduratzen direnak?

Bestetik, **Administrazio elektronikoaren erabilpena** sustatzea aurrerapauso handia izango da zergadunen tramiteak errazteko garaian; eta gure ustez, emakumeen kasuan bereziki, ordaindutako lana eta etxeko lana (seme-alaben eta adinekoen zaintza, ...) uztartzen baitituzte.

Gainera, zerga batzuen eta besteen kanpainen hedapena (irudiak, mezuak, eta beste) generoaren ikuspegitik egin beharko litzateke.

SAILA eta €**OGASUN ETA FINANTZA 05****2012: 115.713.703 €-KO AURREKONTU PROPIOA****2013: 116.737.229 €****Programa eta €**

Izena: Aurrekontuak eta Finantzak

Kodea: 20

Genero egokitasuna: handia

Aurrekontua: 3.526.450

Programako aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentajea

	2011	2012 (P)	2013	12/11	13/12
GASTUA	3.697.175,97	3.777.286,00	3.526.450,00	2,17%	-6,64%
% AURR. PROPIOA	4,04%	3,26%	3,02%	-19,24%	-7,46%

Programak Ogasun eta Finantza Departamentuaren aurrekontu propioaren %3,26 hartzen du, baina garrantzizkoa da aurrekontuetan generoa txertatzea bultzatzeko eta koordinatzeko duen izaera instrumentalagatik.

Nabarmentzekoa da bultzada eta koordinazio lan honetan hautatutako programetako arduradunen eta Euskal Herriko Unibertsitateko kolaboratzaileen dedikazioa.

Programaren helburuak, hartzailak eta ekintzak

Helburua: genero ikuspegia kontuan izatea aurrekontuak prestatzeko garaian.

Ekintzak:

- Aurrekontu politika genero ikuspegitik aztertzekeo prozesuan parte hartzea.
- Genero ikuspegia aurrekontuan aplikatzeko tresnak 2013ko aurrekontuaren jarraibide teknikoetara eramatea.
- Genero eragina 2013ko aurrekontuetan ebaluatzeko txostena prestatzea.
- Genero eragina 2011ko Kontu Orokorrean ebaluatzeko txostena prestatzea.

Barne izaera eta izaera instrumentala duenez, hartzailak hauek ditu:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak
- Uliazpi Fundazioa foru organismo autonomoa
- Merkataritzako foru sozietateak (Bidegi, Izfe, Etorlur eta Lurraldebus)
- Programa kudeatzen duten langileak beraiek, gaian trebatzen eta sentsibilizatzen diren heinean.

Genero ikuspegitik ebaluazio kuantitatiboa**Programak ez du herritarrengan zuzeneko ekintzarik. Hurrengo datuak aurrekontuko programak genero ikuspegitik aztertzekeo prozesua txertatzekeo buruzkoak dira.**

	2011		2012		% 12/11
	Programa kopurua	Programak guztira %	Programa kopurua	Programak guztira %	
Programa egokiak	69	93,24%	71	93,42%	0,19%
Aztertutako programak	15	21,74%	33	46,48%	113,80%

Ebaluazio edo gogoeta kualitatiboa

Azterketak adierazten du prozesua genero ikuspegitik egokitzat sailkatutako programa guztiak 2014 aurrekontuko ebaluazio txostenean txertatzeko ezarritako helburua kontuan izanda gauzatzen ari direla.

Zerga eta finantza Politika: OGASUNA ETA FINANTZAK SAILA

SAILA eta €	OGASUNA ETA FINANTZAK					
Programa eta €	Izena: Zerga eta Finantza Politika Kodea: 30 Genero egokitasuna: Handia Aurrekontua:					
	GASTUEN AURREKONTUAREN BILAKAERA					
		2011	2012	2013	12/11	13/12
		1.764.861,00	1.708.447,00	1.642.177,00	-3,20	-3,88
	Programaren garrantzi ekonomikoa , ordea, gainontzeko programetan ez bezala, sarreraren aurrekontu aldetik, bai eta gastu fiskalen aurrekontuen aldetik neur daiteke, alde honetatik eragiten baitu populazioaren gainean.					
Jarduera	SARREREN AURREKONTUAREN BILAKAERA (Itundutako zergen aurrekontua)					
	2011	2012	2013	12/11	13/12	
	3.940.019.000,00	3.837.736.300,00	3.773.075.820,00	-2,6	-1,7	
	GASTU FISKALEN AURREKONTUAREN BILAKAERA					
	2011	2012	2013	12/11	13/12	
2.050.022.000,00	1.955.855.000,00	1.739.635.029,00	-4,6	-11,1		
<u>Izena:</u> Zerga araugintza. <u>Egitekoa:</u> Zerga alorreko araudia sortu, eta berari buruzko aholkularitza eman. Zerga eta finantza politikaren ildo nagusiak definitu, zerga sistema ekitatiboagoa eta banakorragoa izan dadin, beti ere genero ikuspegia kontuan hartuta. Zentzu honetan, gastu fiskalen bidez, besteak beste, gizartean dauden desberdintasunetan eragin daitekeela aipatu behar da. <u>Nori zuzentzen zaion:</u> Zerga politika populazio osoari zuzentzen zaio, pertsona fisiko nahiz juridikoei. Gure kasuan, hala ere, eragiteko gaitasun handiagoa dugu zerga zuzenen aldetik (BEZean araudia Estatutik baitator, esaterako) eta, hau dela eta, irabaziak lortzen dituen edo/eta ondare pilaketa handia duen populazio taldean gehiago eragin dezakegu zuzenki, nahiz eta gainontzeko populazio zatiaren bizitza baldintzetan ere zeharka eragin (kenkariaren aplikazioz zenbait jarduera sustatuz, esaterako).						
Analisi kuantitatiboa	A) ADIERAZLE NAGUSIENEN DIAGNOSIA					
	Esan bezala, programa populazio osoari zuzentzen zaio eta, zentzu honetan, Gipuzkoako gizartearen generoari buruzko diagnosis egin ahal izateko, zenbait adierazle esanguratsu batu ditugu (PFEZ aitortpenetatik ateratakoak):					
	1) Emakumeen eta gizonen batez besteko errenta eta zerga tasa nominala eta efektiboa					
		Batez besteko errenta (euroak)			Bariazioa	
		2008	2009	2010	09/08	10/09
Emakumeak	14.747	15.468	15.161	+%4,9	-%2,0	
Gizonak	25.103	25.865	26.058	+%3,0	+%0,7	
Emak/gizon arteko arraila	%41,3	%40,2	%41,8	-1,1p.p.	+1,6p.p.	
	Batez besteko tasa nominala		Batez besteko tasa efektiboa			
	2009	2010	2009	2010		
Emakumeak	24,6	25,1	13,5	14,7		
Gizonak	26,0	26,4	16,2	17,5		

Aurreko ekitaldian ez bezala, 2010ean batez besteko errentari dagokionez emakumeen eta gizonen arteko arraila handitu egin da. Honela, emakumezkoen b.b. errentak %2,0ko jaitsiera izan duen bitartean, gizonaen arteko %0,7koa igoera jaso du. Datu hauek Eustatek bere *Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA)* aldizkako azterketan argitaratutako datuekin bat egiten dute: 2009 urtetik 2010 urtera, gizonaen okupazioa handitu den bitartean, emakumezkoena txikitu egin da. Hala ere, 2011ri begira, kontrako joera nabari da: emakumezkoen okupazioa handitu egin da eta gizonaen arteko behera egin du. Orotara, emakume eta gizonaen arteko aldea, PFEZaren arabera kalkulaturako errenta mailari dagokionez, oso handia da (gizonaen baina %40 gutxiago jasotzen dute). Alde nabarmen hau azaltzen duten arrazoi nagusiak ondokoak dira: Lehenik eta behin, emakumeen okupazio tasa baxuagoa da, lan merkaturatze prozesua oraindik ematen ari da. Bestalde, lanaldi partzialerako joera handiagoa dute: zaintza eta etxeko lanen ardura beren esku batik bat egonik, oraindik ere, ordaindutako lanerako denbora murriztagoa dute gizonaen aldean. Azkenik, eta aurrekoarekin lotuta, enpresetako ardura postuetan emakume gutxi ikus daitezke, hau da, promoziorako aukera gutxiago dituzte: etxeko esparruari dedikazio handiagoa eskaintzen diote gizonaen aldean eta honek zenbait ardura postuk eta goi karguk eskatzen duten denbora inbertsioa galeratzen die.

Zerga tasei dagokionez, emakumezkoen nahiz gizonaen kasuan tasa efektiboan emandako igoerak tasa nominalean emandakoak baino altuagoak izan dira. Honetan zerikusia izan du, dudarik gabe, zenbait kenkariren beherakadak: jarduera ekonomikoa sustatzeko kenkaria baldintzatua izateak 2010az geroztik (400 euroak...) eta etxebizitza kenkarietan egondako jaitsierak, gehienbat.

2) Kenkari desberdinen aplikatzea

2009 eta 2010ean aplikaturako kenkariaren portzentajea					
	Emakumeak		Gizonak		Arrailaren hobekuntza
	2009	2010	2009	2010	Aldak. 10 /09
Oinarri likidagarriaren (orokorra eta aurrezkiarena) g/ pisua	36,8	37,1	63,2	62,9	+0,3
Ohiko etxebizitza eskuratzea					
Erosketa, birgaiketa	38,4	39,1	61,6	60,9	+0,7
Alokairua	42,3	43,3	57,7	56,7	+1,0
Mendetasunaren kenkaria	41,9	45,5	58,1	54,5	+3,6
Ondorengo ahaideen kenkaria	37,5	38,5	62,5	61,5	+1,0
Sindikatuaren aldeko ekarpenak	35,0	36,0	65,0	64,0	+1,0

Oinarri likidagarriaren gainean emakumeek duten pisua arinki hazi da 2010ean (0,3 p.p. gehiago).

Hori horrela, kenkariari dagokionez, emakumezkoek gizonaen arteko zuten arraila txikitu egin da kenkari nagusienetan. Kasu nabarmenena mendetasunagatik kenkariarena da, gizonaen arteko arraila 3,6 p.p. gutxitu baitute.

Nabarmenezkoa da, hala ere, kasu guztietan (sindikatuaren aldeko ekarpenen kasuan izan ezik) emakumeek kenkari portzentaje altuagoa erakusten dutela beraien oinarriaren gaineko pisua baino. Alokairuaren kenkariak eta mendetasunaren kenkariak emakumeengan hartzen duten pisua azpimarratzekoa da, errealitatearen isla baitira: emakumeek, oro har, zaintza lanen arduradun dira eta, bestalde, etxebizitza erosteko muga handiagoak dituzte (errenta maila, nagusia).

3) Baterako aitortpenak

Baterako aitortpenak % kopuru osoaren gainean	
1994	37,3
2000	30,4
2004	27,7
2010	21,1

Baterako aitortpenak urtez-urte garrantzia galduz doaz, aurreko taulak erakusten duen moduan. Bilakaera honen arrazoi nagusia da emakumeen lan merkaturatze progresiboa: 1990-2011 epealdian emakumezkoen okupazio tasa %29,4tik %46,8ra pasa da. 1992-1994 krisialdian emandako okupazio tasaren jaitsiera alde batera utzita, igoera etengabekoa izan da, 2009 eta 2010 urteetan, krisialdi berriarekin zertxobait behera egin duelarik. 2011an ostera hobetzen da datua, 2008ko maximoarekin berdinduz.

Aztertutako adierazleek, oro har, 2010 ekitaldian datuen okertze bat islatzen dute. Alde batetik, batez besteko errentak behera egin du emakumeen kasuan, gizonezkoekin zuten arraila izugarria areagotuz, gainera. Bestetik, okupazio tasak behera egin du 2010ean, gizonezkoenak gora egin duen bitartean. Baina, kontrako aldean, gastu fiskalak emakumeei onura handiagoa ekarri die proportzionalki 2009arekin alderatuta (kenkarietan beraien pisua handitu baita, kasu gehienetan) eta, bestalde, ezin ukatu dezakegu emakumearen lan merkaturatzea errealitate nabarmena dela, baterako aitorten kopuruaren pisua ia erdira jaitsi baita azken 15urtetan.

B) PROGRAMAN EGINDAKO JARDUKETAK

Adierazleek erakusten duten egoera kontutan hartuta, **programaren barnean egindako jarduketak** aztertuko ditugu.

Zerga araudia aldatzeko edo berria sortzeko proiektuen genero eraginaren azterketak.

2011 urtean zehar eta 2012ko lehen hiruhilekoan 5 proiekturen zergabilketa eta genero eragina aztertu da. Hauetatik, hirutan proiektuak eraginik edukiko ez zuela ondorioztatu da, beste batean eragina positiboa izango dela esan da eta, azkenik, bakar batean eragin negatiboa iragarri da. Eragin hauek aurreikusi dira:

Araudi proiektuen genero eraginaren txostena	Eraginik ez	Eragin positiboa	Eragin negatiboa
2011. urterako Ondarearen gaineko Zerga berriz indarrean jarriko duen Foru Arau Proiektua (1)		+	
Foru Dekretu Arau Proiektua, Sozietateen gaineko Zergan, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta zerga berezietan aldaketak sartzen dituena.	X		
Foru Dekretu-Araua 2011, Ez Egoiliarren Errentaren gaineko zergan, BEZean eta Zerga Berezietan aldaketak sartzen dituena	X		
Abenduaren 23ko 4/2009 Foru Araua eta Abenduaren 23ko 5/2010 Foru Araua (2012rako zenbait kenkariren desagertzea aurreikusten zutenak) (2)			-
PFEZ ekitatea lortzeko Foru Arau Proiektua (2012 ekitaldirako eragingo duena)	X		

(x) Ez du eraginik (+) Eragin positiboa du (-) Eragin negatiboa du

(1) Ondarearen gaineko Zerga berriz indarrean jartzeak duen eragina bi aldetatik ikus daiteke: Alde batetik, aitortzaile kopuruaren aldetik, emakumeak gehiago dira (zergadun guztien %56,2); baina, bestetik, kuota osoaren %54,3 ordainduko lukete. Beraz, progresibitate aldetik aztertuta, emakumeei proportzionalki gutxiago eragingo die neurriak. Hala ere, genero eta justizia sozialaren aldetik aztertuz gero, zerga honek ondare masa handiak dituzten zergadunen taldeari eragingo dienez, beraien ekarpenarekin gutxien pribilegiatutako taldeetara errentaren birbanaketa ahalbideetako du (tartean zenbait emakume talde: alargunak, langabeak, etorkinak,...), neurriaren eragina positiboa izango dela ondorioztatzen dugu.

(2) Alde batetik, 400 euroen desagertzea oinarri ezargarri guztientzat (15.000 eurotik beherakoentzat ere): Jarduera ekonomikoa sustatzeko kenkaria denboran mugatua onartu zen sortzez, 2012 urteaz geroztik ez baita aplikatuko. Honen eragina errenta baxuena duten pertsonen (emakumeek, bereziki) pairatuko dute batik bat, izan ere, 2010-2011 ekitaldian 20.000 eurotik gorako oinarri ezargarria zutenentzat jadanik desagertua baitzen.

Bestetik, pentsiodunen eta langabeziagatik prestazioen hartzaileen kenkari konpentsagarria, 2011rako bakarrik zegoen indarrean. Honen desagertzea ere, zailtasun ekonomiko handiena duten aitortzaileei negatiboki eragingo die, oraingoan ere emakumeak bereziki kaltetuz.

1) BALORAZIOA:

Egindako analisi kuantitatiboa kontuan edukita, ondoko balorazioa egin dezakegu:

Zerga araudiaren bidez gaitasun desberdinetan eragin daiteke (ikus 2012 aurrekonturako eginiko koadroa, gaitasun eta adibideekin). Ondoko gaitasunetan, bereziki: Diru sarreretan, zaintzen arloan, soldatapeko lanerako sarbidean, etxeko esparruan, hezkuntzan eta osasunean.

Krisi ekonomikoko abagune honetan, gainera, beharrezkoa da genero aldetik dauden arrailak oraindik handiagoak ez bihurtzea.

Hori dela eta, bi arlo nagusiei buruz (ERRENTA MAILA, batetik, eta LAN ERREPRODUKTIBOA- etxeko lanak, zaintza lanak,...-, bestetik) hausnarketa egin beharrean gaude, zenbait neurri aztertuz.

2) ETORKIZUNERAKO HELBURUAK ETA EGITEKOAK:

Aipatutako bi esparru nagusienei (DIRU SARRERAK eta LAN ERREPRODUKTIBOA) buruzko azterketa bultzatuko da:

Konkretuki, PFEZe an baterako tributazioaren egokitasuna aztertzea planteatzen dugu, emakumearen lan merkaturatzea eragozten duen ala ez ikusteko eta bide alternatiboak aztertuko ditugu.

Zentzu honetan, gainontzeko departamentuekin (gizarte politikakoekin, batik bat) gogoeta eta datu elkartrukaketa amankomuna egitea interesgarria izango litzateke, Aldundiaren politiken norabidea eta efektibitatea neurtze aldera.

Gure helburuak kuantifikatze aldera, ondoko adierazleen bilakaera planteatzen dugu:

	ADIERAZLEAK		HELBURUA	
	2009	2010	2011	2012
Oinarri likidagarriaren (orokorra eta aurrezkiarena) g/ pisua - Emakumeak	%36,8	%37,1	%37,5	%38,0
Ohiko etxebizitza eskuratzeko kenkariaren guztizkoan ALOKAIURUaren kenkariak duen pisua				
Gizonak	%13,0	%15,0	%18,0	%20,0
Emakumeak	%14,9	%17,2	%20,0	%22,0
Errenta mailaren dispersioa -GINI indizea- PFEZeko Oinarri likidagarri osoa- kuota likidoa	0,364 7	?	0,3600	0,3500

Oro har, gizartean ekitatea eta birbanaketa ahalbidetuko duten neurrien azterketa bultzatuko dugu. Planteatzen ditugun helburuak ez daude zerga politikaren eragin zuzenaren menpe, baizik eta egoera sozioekonomiko zailak baldintzatuko ditu, hein handi batean. Hala ere, etxebizitza kenkarian emandako aldaketek, zerikusi handia dute etxebizitzaren merkaturan emandako beherakadarekin, esaterako. Baina zerga politikaren bidez erosketen kenkaria txikitu izanak, alokairuarena mantenduz, bigarren aukera hau sustatzeko asmoa erakusten du, datozen urteetan adierazle honek gora egitea espero dugularik.

GINI indizeak gizartean dagoen desberdintasuna neurtzen du, Otik gertu dauden balioek berdintasun osoa adierazten dutelarik eta 1etik gertu daudenek erabateko desberdintasuna. Guk aukeratutakoak (PFEZeko oinarri likidagarria zerga ordaindu ostean), zehazki, errenten mailen arteko desberdintasuna neurtzen du. Kontuan eduki behar da, guk kalkulaturako indizea ez datorrela bat estatistika atarrietan herrialde desberdinetzat ematen den GINI indizearekin, metodologia desberdinak erabiltzen baitira. Ez dira alderagarriak, beraz. Jakinik emakumeen errenta maila gizonena baino askoz txikiagoa dela, GINI indizearen jaitiera bat desiragarria litzateke, honek adieraziko bailuke gizartean dagoen desoreka gutxitzen ari dela, berdintasunaren mesederako.